

Sibila Vigna

Jacquie-ren oparia



Intermón
Oxfam



Jacquie-ren oparia



Intermón
Oxfam

Sortaren zuzendaritza: Raquel León

Itzulpena: Jexuxmari Zalakain

Aholkularitza-batzordea: M^a Àngels Alié, Carme Batet, Mireia Claverol, Anna Conangla, Montse López, Juan Manuel Matos, Laura Mendoza, Elena Millá, José Palos, Ferran Polo, Vanessa Quintana, María Rico

Ekoizpenaren koordinazioa: Elisa Sarsanedas

Azalaren eta barruko diseinua: Lluís Torres

1. argitaraldia: 2003 ko ekaina

© Autoretza: Sibila Vigna

© Apaingarriak: Àngel Sauret

© Intermón Oxfam

Roger de Llúria, 15. 08010 Bartzelona

Tel. 93 482 07 00. Faxe 93 482 07 07

e-maila: info@IntermonOxfam.org

ISBN: 84-8452-207-5

Lege-gordailua: B-26.249-2003

Errealizazioa: MC producció editorial / Pàgina 98

Inprimaketa: EGS, Rosario, 2 (Barcelona)

Espainian inprimatua

“Copyrigh-aren” titularren onarpenik gabe, liburu honen zati edo ale osoaren ugaritzea erabat debekatuta dago, edozein delarik erabiltzen den modua edo prozedura.

Klororik gabeko paperean inprimatua

A u r k i b i d e a

Jacquie-ren oparia	4
1 • El Salvador ezagutzen	11
2 • Gure eskubideak	12
3 • Erosketak egiten	13
4 • Zer erosi eta zer saldu?	14
5 • Munduan barrena	15
6 • Langileek eskubideak dituzte	18
7 • Eskubideak beherapenetan	19
8 • Nork jartzen ditu joko-arauak?	20
9 • Pentsatzeko	22
10 • Honek aldatu beharra dauka!	23

Jacque-ren oparia



Miguel-ena da!
El Salvador-eko adiskidea!



Ni oso pozik nago berriro El Salvador-en Nire gurasoekin eta betiko adiskideekin, nahiz eta gure herria une larrian bizi den. Jende asko lanik gabe dago eta jende guztiak "krisi ekonomikoa" aipatzen du.

Txamarra atsegin izatea espero dut. Amak josiz uen lantoki berrian. Makina handi batean lan egiten du, eta pila bat txamar, praka eta elastikoak egiten ditu. Ni, bitartean, eskolara joaten naiz eta amonari laguntzen diot etxeko lanak egiten.



Txamarra janztean,
gogoratunitaz.

Agur
Miguel



Hara hemen Jac quie.
Espainiatik gu ikustera
etorritako adiskidea da.



Mila eskerni
bisitatzera
etortzeagatik.
Primeran ibiliko gara!



Eta eguerdian, bazkalorduan...




Bazkalostean...









El Salvador ezagutzen

Ezagutu nahi al duzu nire herria?

EL SALVADOR

- Populazioa: 6. 154.000
- Azalera: 21.040 m²
- Hiriburua: El Salvador
- Moneta: Kolona
- Bizi-itxaropena jaiotzean:
 - Gizonek: 67 urte
 - Emakumeek: 73
- Alfabetatuak: %76
- Ikasketa unibertsitarioak: %18
- 91 mediku dago 100.000 pertsonako

El Salvador Ertamerikako herri txikiena da, eta populazio-dentsitate handienekoa. Sumendi-kate batek zeharkatzen du alde-rik alde. Kafea da merkaturatzeko produk-turik garrantzizkoena, goiko lurretan. Oze-ano Bareko lurretan, epelagoak direnez, kainabera azukreduna landatzen da. Industria nagusiak hauexek dira, nekazarit-zako elikagaiak, tabakoa, produktu kimi-koak eta ehungintza. Latinamerikako deforestazio basatiena pairatzen duen herria da El Salvador. Espainola da hizkuntz ofiziala eta nagusia. Talde indigena bat-zuek náhuatl eta kekchí hitz egiten dute, bereziki.

Guía del Mundo 2001-2002 (www.eurosur.org)



Ba al dakizu zer den makila bat?

El Salvadorren makila esaten zaio produk-tu bat osatzeko piezak lotzen dituen enpresa bati. Teknologia gutxi eta lan-esku asko eskatzen du. Makilek Iparreko kontratista batentzat lan egiten dute, lehengaiak eta elkarri lotzeko piezak ematen dizkietena.

Makilak leku frankoetan kokatzen dira, hots, Hegoko gobernuek sortutako indus-trialdeetan, multinazional deitzen diren enpresa handien inbertsioak eskuratzeko. Horretarako, gobernuek erraztasun eko-nomiko handiak ematen dizkiete enpresa horiei: ez dituzte zergak ordaintzen, dirua herritik aise atera dezakete eta bertoko azpiegitura eta lokalak eskura dauzkate.

Guía educativa para el consumo crítico, A.V, Libros de la Catarata.

- Deskriba ezazu Miguel-en amak egiten duen lana.

- Zer arazo ditu Miguel-en amak bere lanean?

Gure eskubideak



Pertsona guztiek ditugu oinarrizko premia batzuk, bizitzeko ase behar ditugunak.

- Egin ezazu *bizitzeko behar duzun* gauza guztien zerrenda.

Eskubideei esker, oinarrizko premiak ase eta pertsonak babesten dira. Eskubideak bermeak eta askatasunak dira, gizaki guztiok bizitza duina izan dezagun.

- Zerrendako premia batzuk pertsonen eskubideei dagozkie. Ingura itzazu zirkulu batez.
- Zure ustez, zergatik dio Miguel-ek langileen eskubideak ez direla errespetatzen? Eztabaida ezazu zure kideekin.

Erosketak egiten



Jokoa amaitu ondoren, erantzun:

- Erosi edo saldu egin duzu dendan?

- Nola sentitu zara zure egitekoa egiten?

Zer erosi eta zer saldu?

- Aurki itzazu letra-zopan, eros eta sal ditzakegun produktuak

Merkatuan dauden produktuak ondasunak edo zerbitzuak izan daitezke.

Ondasunak merkatuan diruaren ordezkatzeko egiten dira. Idatz itzazu adibide batzuk:

E	M	D	A	T	B	X	U	J	O	S	T	A	I	L	U	A
L	S	Y	R	V	O	K	R	G	O	P	O	R	R	A	K	A
I	C	K	R	N	Y	W	A	H	A	W	O	T	U	C	G	E
K	Z	U	O	K	Q	O	E	O	V	R	D	R	P	N	A	R
A	N	A	P	L	G	J	A	R	K	V	R	M	R	F	S	O
G	A	T	W	Q	A	S	R	R	R	A	N	A	T	A	A	D
A	V	S	K	A	U	R	U	B	I	L	T	A	I	B	K	A
I	N	Ñ	O	Q	A	R	A	U	K	I	D	E	M	O	P	N
A	N	T	Z	E	R	K	I	A	B	I	O	E	N	Z	A	E
K	E	T	X	E	B	I	Z	I	T	Z	A	G	J	I	H	D
E	L	E	K	T	R	I	Z	I	T	A	T	E	A	S	O	R
K	A	N	S	E	R	T	O	R	T	K	E	L	E	S	S	O

- Zer erosten eta saltzen du zure familiak? Letra-zopako produktuak hartuz, egin bi zerrenda.

Nire familiak erosten duena:

Nire familiak saltzen duena:

- Zure gurasoek jasotzen al dute dirurik bere lanaren truke? Horrela bada, ba al dago erlazierik haien lanaren eta merkatuaren artean?

Munduan barrena



***“Inoiz pentsatu al duzu nondik datorren zure arropa?
Praka bakero batzuen nondik norakoa erakutsiko dizut”.***

Praka bakeroen istorioa

Ipswich (Britania Handia) hiriko denda handi batean salgai daude praka bakero batzuk, Lee Cooper markakoak. Honaino etorri aurretik, bidaia luzea egin dute praka horiek, munduan barrena.

Duela gutxi Frantziara iritsi ziren, baina Frantziara Tunisiatik iritsi ziren. Tunisian, Ras Jebel izeneko hirian dago praka-fabrika. Lantegi hartan 500 emakumezko lan egite dute, oso arin eta egun osoan josten, praka bakoitzeko atalak josten.



***Baina... nondik dator prakak egiteko oihala,
nondik botoiak eta kremailera?***

Praka bakeroak egiteko kotoia Benin-en lantzen da, baina patrikak egiteko kotoia Pakistanen.

Oihala Italian egiten da, eta Alemanian egindako tindu berezi batez tindatzen da. Tunisiako lantegira iristean, oihala Turkian dagoen amatatutako sumendi bateko pomiz harria erabiliz garbitzen da. Garbiketa-prozesu horretan tinduaren parte bat galdu egiten da eta ibaietara joaten da.

Prakak josteko hariak Ipar Irlandan egiten dira, eta Espainiako kolorez tindatzen dira.

Kremailerak bi leku ezberdinetan egiten dira: Poliesterrezko xingola Frantzian egiten da, eta metalezko hortzak Japoniako letoiz eginda dago. Botoiak eta loturak egiteko letoia Alemanian egiten da, Australiako eta Namibiako meatzetako kobrea erabiliz.


Azkenik, pieza guztiak batzen dira Ras Jebel-eko fabrian. Handik dendarako bidea hartzen dute praka bakeroek.

*“La vuelta al mundo” izeneko artikulutik egokitua,
Integral aldizkariaren 263. zenbakian argitaratua, 2001eko azaroan.*

- Testua irakurrita,
marka itzazu gorritz praka-bakeroen fabrikazio-prozesuan parte hartzen duten herrialde guztien izenak.
Eta kolore urdinez, produkzioaren etapa bakoitza.

Diagrama de 12 burbuilak (6 zutik) berrak, erabilgarriak, erabilgarriak, erabilgarriak, erabilgarriak, erabilgarriak, erabilgarriak, erabilgarriak, erabilgarriak, erabilgarriak, erabilgarriak, erabilgarriak.

Espainia
hariz tindatuta.



- Beha ezazu goiko mapa hori eta idatzi leku egokian praka bakeroen produkzioan parte hartzen duten herrialde guztien izenak eta bakoitzean egiten den prozesuaren atala.
- Marka itzazu gezi urdinak erabiliz, praka bakeroen eta osagarri bakoitzaren joan-etorria.

Bidaia sortutako arazoak...

- Irakur itzazu ondoko testuak, non gure praka bakeroen bidaiari buruzko informazio gehiago hartuko duzun.
- Eman dezagun kazetari bat zarela, eta ipini izenburua testu bakoitzari.

Izenburua:

Benin-en ekoizten den kotoiak orain ehun urte bezain pobre mantentzen ditu hango langileak, Frantziak kotoia han sartu zuenean bezalaxe, alegia. Orduz geroztik izan den aldaketa bakarrenetarikoa da orain izurriteen kontrako botikak eta ongarriak botatzen direla. Produktu kimiko horietako batzuek gaixotasun larriak edo hilgarriak eragin dizkiete kotoia lantzen dutenei.

Izenburua:

Tunisian egiten den praka bakeroen oihalaren garbiketa ekoizpen edo produkzioaren atalik zikineta da. Ibaietara isuritako tinduak ez dio argiari uretara sartzen uzten, eta, beraz, hil egiten dira landareak eta arrainak.

Izenburua:

Ras Jebel-eko lantegian, 220 dinar kobratzen dute jostunek hilean (180 bat euro), herrialde hartan bertan ehungintzako langileek kobratzen duten batezbestekoa baino dezente gutxiago. Jostun batzuk kexu dira, legearen arabera, hamar ordutik gora lan egiterik ez dagoelako, baina batzuetan hamaika orduz lan egiten dute. Beste langile batzuek diotenez, (egunean bi aldiz) hamabost minutu dauzkate komunetik buelta egiteko (joan eta etorri), eta urruti samar daude lantokitik.

Izenburua:

Tsumeb-eko (Namibia) meatzetan elementu kutsakor ugari daude askotan, artsenikoa eta beste mineral kutsakorrak, adibidez. Eskualdeko industria nagusia izan arren, kezka handia du, inguruko biztanleengan produktu horiek izan dezaketen eragin kaltegarria dela eta. Meatzari batzuek zauri larriak izan dituzte biriketan, arrazoi hori dela medio.

- Testuak irakurri ondoren, azpimarra itzazu injustutzat dituzun egoerak.
- Aukera itzazu 4 arropa-mota, 4 oinetako-pare, 4 etxeko tresna elektriko, eta begira ezazu nondik datozen. Idatz itzazu emaitzak, eta konpara itzazu zure ikaskideek idatzi dituztenekin.

	Arropa	Oinetakoak	Etxeko tresna elektrikoak
Produktu-mota			
Jatorriko herrialdea			

- Zer iritzi duzu, emaitzak ikusita?

Langileek eskubideak dituzte



*Lehen lan-eskubideez aritu gara.
Ikus ditzagun zeintzuk diren.*

- Pertsona guztiek dute **lan egiteko** eskubidea eta lana libreki aukeratzekoa.
- Pertsona guztiek dute **lan-baldintza justuak** eta asegarriak edukitzeko eskubidea.
- Pertsona guztiek dute **soldata justua** edukitzeko eskubidea, familia osoari bizitza duina emateko modukoa.
- Pertsona guztiek dute **gizarte-segurantza** edukitzeko eskubidea, langabezia-, gaixotasun- edo zahart-zaro-kasuetarako.
- Pertsona guztiek dute **sindikatuak sortzeko** eta haietan parte hartzeko eskubidea.
- Pertsona guztiek dute **atseden hartzeko** eskubidea, aisialdiaz gozatu, lan-jardunaldi arrazoizkoa eta ordaindutako oporrak edukitzekoa.
- Gainera, debekatuta dago **behartutako lana**, eta lanean hasteko **gutxieneko adina** dago.



- Komenta itzazu eskubide hauek aitarekin, amarekin, aitona-amonekin... eta galde egiezue, ea eskubide horiek errespetatzen diren gure herrialdean. Idatz itzazu zure emaitzak.



Eskubideak beharpenetan

- Irakur itzazu ondoko testu hauek arretaz.

Leyli-ren istorioa

Leyli bere familiarekin bizi zen Java Erdikoan; Indonesian, alegia. Ikasketak amaitu ostean, 1997an, Mendebaldeko Javara joan zen, Nikomas izeneko fabrika lan egiteko, hainbat marka ezagunetako oinetakoak egiten dituen fabrika, hain zuzen.

Lanpostua eskuratuta, Leyli oso pozik zegoen, ahizpa ttikiei eskola ordaintzeko dirua eskura zezakeelako.

Baina soldata hain zen eskasa ezen bizirauteko ere nahikoa ez zela. Aurreztu ahal izateko, beste hamaika lankiderekin bizi zen, fabrikako logela xume batean. Leyli-k eta bere lagunak oso gogor lan egiten zuten, ezarritako produkzio-xedeak betetzeko, baina begiraleak iristen zirenean, irainka hasten zitzaizkien.

Egoera hartaz nazkaturik, sindikatuan parte hartzean deliberatu zuen Leyli-k. Ugazabek jakin zutenean, mehatxu latzak egin zizkioten, bileretara joan ez zedin.

Gaur egun, Leyli fabrikako beste lankide batekin ezkondata dago, semetxo bat daukate, aitona-amonekin Java Erdikoan bizi dena. Leyli-k eta bere senarrak gogor lan egin beharra daukate haurra mantentzeko. Bidaia oso garestiak direnez, Leyli-k eta senarrak txandak egin behar izaten dituzte semea lau hilabete behin bisitatzeko.

“Cas Study: Leyli’s Story”-tik egokitua (istorio hori Nike kirol-produktuen markari buruz Oxfam Community Aid Abroad-ek eginiko txostenean dago).

<http://www.caa.org.au/campaigns/nike/reports/machines/introduction.html>

Momena, Bangladesh-eko neskatila

Dhaka-n bizi naiz, Bangladesh-en. Lehen herri ttiki batean bizi nintzen, baina nire familiak hiriburuan kokatzea erabaki zuen, lana lortzearren. Amak jantziak egiten dituen ehun-fabrika batean hartu zuten. Soldata ez zen oso handia, baina diru hori premiazkoa zen familiarentzat. Auzoko eskola batean hasi nintzen ikasten, eta berehala egin nituen lagunak.

Orain hilabete gutxi batzuk, ama eta beste zenbait langile kanpoan utzi zituzten, lanik gabe. Ugazabek zioten, ezin zietela lanik eman, salmentak beherantz zihoazelako. Hori gertatzen da herrialde aberatsek gero eta ehun-produktu gutxiago erosten dituztelako gure herrian.

Nik eskola utzi behar izan dut, eta lana bilatu amari laguntzeko. Laster eskolara itzuli nahi nuke...

Zure ustez, zer eskubide urratzen ari dira kasu bakoitzean?

Momena-ren istorioan:

Leyli-ren istorioan:

- Eman itzazu arrazoiak, kasu bakoitzean:

Nork jartzen ditu joko-arauak?

• Argi ditzagun ideiak

Sindikatura langileen erakunde bat da, lan-eskubideak defenditzeko sortu dena. Sindikatu baten indarra negoziazio kolektiboan dago. Etekin hobeak lortzen dira denak batera negoziatuz, pertsona bakoitza bere kabuz ibilita baino.

- Ezagutzen al duzu sindikaturen bat?

- Norekin negoziatzen dute sindikatuak?

Helburuak lortzeko sindikatuak duten arauetariko bat greba da. Greba, langileek eginikoa, zerbait salatzeko edo lan-hobekuntzak eskatzeko lanik ez egitea da.

- Zer bestelako grebak ezagutzen dituzu?

- Ezagutzen al dituzu protesta egiteko beste modu batzuk?



• Jolas egin dezagun

Lanosa izeneko ehungintza-makila bateko langileak gara, gizon eta emakumeak, eta bertan lan egiten du Miguel-en amak San Salvador-en. Lanpostu hori eskuratzea asko kostatu zaizue, San Salvador-en jende asko baitago lanik gabe, eta enpleguak eskas dira.

Makilan egiten den arropa Europan eta Ameriketako Estatu Batuetan saltzen da, oso ezagunak diren marken etiketak jarrita.

Honako hauek dira zuen lan-orduak: astelehenetik ostegunera goizeko 6:45etan sartzen zarete, eta arratsaldeko 7etan irten; larunbatetan, ordu biak arte lan egiten duzue.

Egunotan elastikoak egiten ari zarete. Zuetariko bakoitzak elastikoaren jostura-mota bat egiten du, ezberdina. Orduko 250 elastiko egiten dituzue. Oso arin lan egin beharra dago, oharkabetasunik gabe, jostura bat eta gero beste bat, josteko makinatik begiak altxatu gabe. Erabat ongi ez dauden elastikoak ez dira onartzen, eta zuen soldatatik kentzen dizuete.



Egun batzuetan ez dituzue ezarritako helburuak betetzen, eta ordu gehigarriak sartu behar dituzue, ordaindu gabeak, gainera, gehienetan.

Bestalde, soldata ez da nahikoa zuen familiaren oinarritzko premiak asetzeko. Fabrikako lan-baldintzak ez dira oso onak ere, oso komun gutxi daude eta bero sapa egiten du, ez baitago haizagailurik. Inor gaixotzen bada eta hiru egunetan huts egiten badu, berehala kaleratzen dute.

Aurretiaz izandako esperientzien arabera, ikasi duzue banaka egindako protestak gutxirako balio izaten dutela, enpresak kalean jartzen dituelako konforme ez daudenak, eta jende berria kontratatzen. Horregatik, oraingoan, ahalegin handiz, sindikatu bat antolatu duzue. Baikor zaudete langileen %80k parte hartzen duelako.

Azken asanbladan **greba egitea erabaki duzue...**

- Nola sentitu zara jolas horretan?
- Arazoa modu betegarrian konpondu al duzue? Zergatik?
- Nork jarri ditu joko-arauak?
- Nork markatu?
- Jolas horrek eta errealitateak ba al dute elkarren antzik?

Pentsatzeko

- Irakur itzazu hurrengo baieztapenak, eta azpimarratu ondoko kolore batekin:

berdea: ados nago
gorria: ez nago ados
urdina: ez nago ziur

Ondasun eta zerbitzu asko kontsumitzea lagungarria da:

gure premiak asetzeko
herrialde pobreetan lanpostu gehiago sortzeko
osasunean eta ingurumenean arazoak edukitzeko
lan-zapalkuntzarako

Langileen eskubideak ez dira beti errespetatzen. Eta erantzuleak dira:

langileen sindikatuak
enpresetako ugazabak
herri aberats eta pobreetako gobernuak

Gaur egun, nazioarteko merkataritza honako hauei laguntzen die:

batez ere, herrialde aberatsei
batez ere, herrialde pobreei
berdintsu, herrialde pobreei zein aberatsei
enpresa multinazional erraldoiei

Nazioarteko merkataritzaren injustizien ondorio batzuk:

multinazionalen etekinen jaitsiera
Hegoko langileen et ekoizleen pobrezia
Hegoko hainbat neska-mutilek ikasterik ez izatea
kontsumitzaileen prezioak igotzea

- Konpara itzazu emaitzak zure lankideekin, eta argudia itzazu zure iritzia.

Honek aldatu beharra dauka!

• Hegoan

Nazioarteko merkataritzak eragiten dituen egoera injustuak direla eta, Hegoko jendea antolatu egiten da haien eskubideak defenditzeko.

Irakur itzazu adibide hauek:

Neska-mutilen salaketa

Momena-k bezalaxe Bangladesh-eko neska-mutil askok eskola utzi egin behar izan dute, aita edo ama ehun-fabrikatik kanporatua izan delako. Kanporatze horien arrazoia hauxe da, alegia Europak eta Ameriketako Estatu Batuek ehun-produktu gutxiago erosten dizkiotela Bangladesh-i.

2002ko apirileko 28an, Dhaka-ko neska-mutilek giza katea egin zuten egoera hau salatzen.



© Rikard Añel / Añel



Duintasunez eginiko elastikoak

Back Aarong Bangladesh-eko erakunde bat da, merkataritza justua eragiten duena. 1978an sortu zuten artisau txikien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Denborarekin, erakundea hazten joan da eta, gaur egun, 350 kooperatiba biltzen ditu, eta 350.000 lagunek lan egiten dute, artisautza, elastikoak, arropa eta etxerako ehunezko produktuak egiten.

Gaur egun, bistan daude aldaketak: Back Aarong osatzen duten kideek prezio justua hartzen dute produktuen truke, erabakietan parte hartzen dute, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetarako bidea irekita daukate eta merkataritza-eredu justuago eta solidarioagoa eragiten dute.

- Iparrean

Europar gero eta jende gehiagok bultzatzen du merkataritza justua.

Hegoaren eta Iparraren arteko merkataritza-modu alternatiboa da:

- Hegoko ekoizleek bizi-baldintza hobekak izan ditzaten.
- Iparreko kontsumitzaileek produktu osasuntsu, duintasunez eginak eta ingurumenari kalterik egiten ez diotenak eros ditzaten.

Hainbat dendatan eta supermerkatu batzuetan aurki ditzakezu merkataritza justuko produktuak.



© Intermark Oyfam

Merkataritza justuaren printzipioak hauexek dira:

- Bizitza duinerako soldatak
- Haurrak lanean esplotatzeari, ez
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna
- Ingurumenarekiko errespetua
- Lan-eskubideak betetzea

Eta zuk zer egin dezakezu?

- Lehenik, idatz itzazu koaderno honetan aurkitutako gauzak eta, denen artean komentatu, munduan milioika pertsonak bizi duten egoera aldatzeko proposamen batzuk.